



“NOLAKO EGURRA, HALAKO SUA”

“Zauden lekuan zaudela” II

Miren Usabiaga Artola

XXXVII Erreterria Hiria Ipuin Lehiaketa. 2017ko “Joxean Arbelaiz” Saria, herriko ipuin onenari. Ereintza Elkarteak antolatua, Erreterriako Udalaren babesarekin.

Valladolid, 1997

Euritako beltz batek babesten zuen Victoria Saenz de Aguirre kanposantuaren sarreran. Ustekabean hotzikara bortitz batek astindu zuen. Ireneren zain zegoen. Zuzeneko begirada bideratu zuen barru aldera. Bertan jende andanaren murmurioak sumatzen ziren. Ez zuen bakarrik joateko inolako asmorik, beraz, zain geratu zen.

Berehala azaldu zen. Biak besotik helduta abiatu ziren familiak Valladoliden zuen panteoirantz. Elkarren arrimuan askoz ere hobeto sentitu ziren bi emakumeak, indarrez eta kemenez. Konplizitatea erabatekoa zen, ez zituzten alferrik igaro azkeneko hogeitau urteak elkarrekin.

Panteoi erraldoia zuten begi bistan, maisukiro eraikia: Karrarako marmolez egindako eskulturak, urrez

ederturiko inskripzioak eta lorategi handientsua. *Hemen gauden, berriz ere, Victoria... Hogeitau urte igaro ditun azkeneko aldiz bertaratu gintunanetik. Orduan ama lurperatu geninan. Bakea hartu zunan eta gaur, hi hartzen ari haiz bakea...*

Jende aunitz zegoen lorategiaren bueltan; ezagunen baten bila aritu zen Victoria, baina ez zuen militarrez jantzitako gizonezkorik baino ikusi. *Ez al da familiako inor etorri, ala? Osabarik? Izeba Maria? Ez dinat inor ikusten...*

Bi emakumeak panteoira hurbildu zirenean, militarrek tentetu egin ziren fusila sorbaldan zutela “Presenten arrrrmas!” oihu bortitzarekin batera. Garrasiak Victoria ezustean harrapatu zuen; hala, ezin izan zuen tupusteko jauzia saihestu. Irenek besotik heldu zion maitekiro eta “lasai, maitia!” entzungaitza xuxurlatu zion belarrira.

Panteoiaren parera iritsi ziren soldaduek egindako korridorean barrena. Bertan, Valladolideko gotzainak eta komandantziako erretoreak jaso zituzten. Victoriak eskua luzatu zion abadeari, zintzo; ezin ahaztu elkar ezagutzen zutenik betidanik. Errespontsua hasi bezain laster, Victoriaren pentsamenduak ihes egin zuen kanposantutik...

Bueno, "padre"! Hementxe gaude aurrez aurre beste behin ere. Oraingoan nik bakarrik hitz egingo dut, hori da bizirik egotearen onura. Hementxe dituzu zure "akolito" guztiak: gotzaina, militarrek, abadea..., Irene eta ni. Ez da beste inor etorri. Zer nahi duzu esatea? Ez dut inongo maitasunik sentitzen... Bestela beharko al luke? Ziur aski bai, baina zerorrek esaten zenuen: "ereindakoa jasotzen da", bada, horixe! Zuk nirekin ereindakoa deusa da, ezer eza. Eta orain, beharbada, ordaina datorkizu: maiterik ez, penarik ez... Lasaitasuna besterik ez.

- ... eta santu guztien izenean, Amen -amaitu zuen erretoreak.

Burua jaso eta begirada zuzendu zion Victoriari azkeneko hitzak bereak izan zitezen. Emakumeak bi pauso eman zituen hilobirantz, esku artean arrosa bat zuela:

- *Adios, padre! Paz para todos.* -murmurikatu zuen lore zuria hilkutxa gainean uzten zuen bitartean.

Militarrek Jaun-andreok fusilak jaso zituzten eta kapitainaren agindua jaso bezain laster tiro egin zuten... bigarrena... hirugarrena, eta ostean, hilobiko isiltasuna.

Victoria kafea hartzen ari zen etxeko terrazan goizeko zazpitan. Astebete igaroa zen jada aita lurperatu zutenetik eta ia normaltasunera itzulia zen: abokatu-langelarako joan-etorriak, Irenekin ibilaldiak, lagunekin otorduak... Gaurkoan, ordea, notaritzara joan beharrean zegoen testamentua irakurriko baitzuen notarioak. Berriro ere ezereza nagusitzen zen Victoriarengan: ez zuen ezer nahi, ez zuen ezer espero. *Aitak ez nindinan maite, berea nindunan besterik ez, guztiaren jaun eta jabe zunan...* Nahiko diru bazuten berak eta Irenek eroso eta inolako kezkarik gabe bizitzeko, beraz, notaritzara joatea bete beharreko "beste" engainamendua besterik ez zen.

- Jaun-andreok -hasi zen notarioa- hementxe bildu gara duela zortzi egun zendu zen On Juan Antonio Saenz de Aguirre Ruiz jaunaren testamentua jakitera emateko asmoz. Hauxek dira bere azken nahiak: "Nire ondasun guztiak alaba izan dudan Victoria Saenz de Aguirrerentzat dira". Hori da guztia.

Victoria zur eta lur geratu zen; ez zuen inondik ere espero, hogeitau urte baino gehiago igaro baitziren aitarekin azkeneko hitzak gurutzatu zituenetik.

- Victoria, hemen dituzu dokumentu guztiak, etxeetako zein bestelako ondasunetako giltzak ere bai. Aurrezki-libretak ere bertan daude. Aitak sekulako ondasuna utzi dizu. -amaitu zuen notarioak. Beste behin ere isiltasun gordina izan zen Victoriaren erantzuna. *Ondasun mordoa eta maitasun hutsa, aurrezki-libreta beteta eta bihotza hutsa...*

Kalera atera zen gertatutakoa oraindik ere sinetsi ezinik. Laneko bulegoko kafetegirantz zuzendu zen Irene bertan topatuko zuen itxaropenez. Hantxe zegoen. Victoriak bere neska-lagunari begiratu zion harrotasunez: zein ederra, zein delikatua, eta aldi berean zein indartsua zen! Oraindiano ere ez zekien nolatan maitemindu zen berarekin... Maite zituen begi txiki haiek, aurpegi beltzarana, gorputz lirain eta sendoa, baina batez ere biziki maite zuen bere zintzotasuna, bere baikortasuna, bera.

Irenek besarkada sentitua eskaini zion. Zein ongi sentitzen zen Victoria bere besoen artean, babestua, asetua... Ez zuen gogoan inoiz halako sentsaziorik sentitu zuenik, ezta amaren besoetan ere. Hain izan zen hauskorra ama, hain mergala...

Kafe kikara esku artean zuela eman zion neska-lagunari gertatutakoaren berri. Biak zein biak aho bete hortz zeuden giltza-sortari begira.

- Tira, Victoria! Ikusiko dugu zer egiten dugun dirua zein ondasunekin, baina aurrena bazkaldu ostean, Regalado kaleko etxera joango gara, zure argazki-albumak eta beti berreskuratu nahi izan dituzun oroigarriak jasotzera. Ados? -proposatu zion Irenek. Victoriak baiezkota eman zion. Gustura itzuliko zen berea izandako etxera, bere gelara, bere oroigarrietara... Beste behin ere eskerrak eman zizkion

patuari Irene bide erdian jarri izanagatik. Beti zuen ikuspegi positiboa, eraikitzailea, laketgarria edo zer zela gertatzen zena.

Hamar minutuko paseoaren ostean iritsi ziren Regalado kalera. Victoriak inguruko jauregi zein jauretxe dotoreei erreparatu zien. *Aitarena onenen artean onena izango zunan, baina ez dun hirea, ezta amarena ere. Ama...aixx... ama aitaren jabetzako beste altzari bat zunan.* Atarian uniforme jantzitako atezainak jaso zituen. Aitaren heriotzarengatik doluminak eman ostean igogailuko atea zabaldu zien bi emakumei begirada kurioa ezin disimulaturik.

Victoriak giltza berezia sartu zuen igogailuko zerrailan eta zuzen-zuzenean iritsi ziren *aitaren* etxera. Etxera sartzean hozkirri bortitza astindu zuen Victoria. Irenek eskua pausatu zuen bere gerrian eta goxo heldu zion lasaitu nahian. Beste behin ere bakea, lasaitasuna. *Irene, ederra, maitia...*

Usaina. Horixe izan zen sumatu zuten lehenengo kolpea. Usain zaharminduak astindu zituen bi emakumeak. Goragalea eta guzti sentitu zuten biek. Laster batean lehioetarantz zuzendu eta zabaltzeari ekin zioten. Gelaz gela ibili zen kuxkuxean: bakoitzaren sofa, norbanaren gela... bakoitzak berea... Ez zuen gogoan aitaren ala amaren muxu bakar bat bera ere, ez bazen konpromisozkoa; ez zuen gogoan laztan edo besarkada bat bera ere. Hutsa, ezer eza sentitu zuen beste behin ere.

Begiak malkoz lainotu zitzaizkion sukaldera iritsi zenean. Pilar sukaldariaren *lurraldera* iritsita, aulki zaharrea eseri eta malkoak poza bihurtu ziren, izan ere, sukaldean bizi izan zituen gurasoek eskaini ez zioten maitasuna: hor besarkadak, hor muxuak, hor aitortzak, hor maitasuna... *Maitagarria Pilar...* Aulkian eserita topatu zuen Irenek.

- Laztana, zure aitaren bulegora etorri behar duzu. - proposatu zion.

Irenek neska-laguna eskutik heldu eta etxearen bestalderantz zuzendu zuen lepo aldean muxukatzen zuen bitartean. Victoria lasaixeago zihoan aitaren bulegoa zabalik ikusi zuen arte; ordura arte barrualdean estalita eduki zuen korapiloa nabarmen du zen berriro

ere. Irenek eskua estutu zion maitekiro.

Arnasa sakon hartu eta barrura sartu zen.

Zoko-usaina. Dena goibel eta ilun azaldu zen. Leihoak zabaldu eta argitasuna nabarmendu bezain fite, hogei urte lehenago izandako eszenatokia azaldu zitzaion Victoriari. Eszenatokiarekin batera aitaren ahotsa etorri zitzaion burura.

- Victoria! Ez duzu lotsaren arrastorik! Zure amaren gorpua lurperatu berria dugu eta zer eta?, etxetik zoazela beste emakume batekin bizitzera? Lotsaizuna zara familia guztiarentzat, hiriarentzat, Espainiarentzat. Ez zaitez sekula santan etxe honetara itzuli. Nire alaba izateari utzi diozu, betiko. Ahaztu ondasunak, ahaztu aita duzunik... Hitz horiek errepikatzen ziren bere buruan kanpai-hotsak izango balira bezala.

Zorabioak jota, zerraldo erori zen alfonbra gainera. Irene izutu egin zen eta goxo bere magalean jaso ostean poltsan zeraman ur botila hartu eta apurka-apurka eman zion. Berehala itzuli zen bere onera.

- A zer izualdia eragin didazun, maitea! -aurpegiratu zion ezti Irenek.

- Orain dela hogei urte bizitakoa etorri zait gogora, Irene. Eta ezin izan diot emozio uholdeari eutsi. Baina jada hobeto nago... -aitortu zion Victoriak.

Lurretik altxa eta gela miatzeari ekin zioten. Victoria zuzenean jo zuen aitak pareta nagusian zegoen koadroa jaistera, izan ere, gogoan zuen aitak atzean kuxa-gordailua zuela. Kuriositatea zuen, bertan zer ote zuen. Inoiz ez zien, ez amari, ez berari bertakoa ikusterik utzi. Pasahitza behar zuen. Irribarre egin zuen. Ederki aski zekien zein zen: 03-08-1938, bere urtebetetze eguna. Kutxak amore eman zuen kirrinka ahula egiten zuen bitartean, zabaltzea nahiko ez balu bezala. Inolako alhadurarik gabe, *aitaren altxorra* miatzeari ekin zion: diru mordo, Espainiako Erreinuko Letra ugari, hainbat etxetako eskriturak eta azpi-azpian, gordeta, kartazal zuri handi bat: Victoriaren jaiotze-egiaztagiria. Beste guztia albo batean utzita zabaltzeari ekin zion: "Victoria Saenz de Aguirre

Iturgaiz, nacida en el Convento hospitalario de las Hijas de la Caridad, sita en Errenteria, provincia de Guipuzcoa, de padre y madre desconocidos...”

Zorabioa, gela bueltaka hasi zitzaion eta indarge sumatu zituen hankak.

- Victoria, Victoria! Ai, ene! -kezkatu zen Irene.

Ziplo erori zen lurrera. Oraingoan gehiago kostatu zitzaion emakumeari bere onera itzultzea. Lortu zuenean, erabat asaldatuta zegoen Victoria.

- Irene, ez naiz aita eta amaren alaba! Zera esan nahi dut...

Eta ziurtagiria luzatu zion neska-lagunari. Begirada azkar bat nahikoa izan zuen Irenek egiaz jabetzeko.

- Baina zer broma da hau? -lortu zuen galdetzea.

- Ez dut sekula horren berririk izan. Irene... Ez banaiz euren alaba propioa. Nor naiz?

Galdera hori buruan zutela atera ziren bi emakumeak Regalado kaleko etxetik. Hitzik esan gabe ohiko zuten tabernarantz abiatu ziren; bertan topatu zituzten lagunak. Aurpegian antzematen zitzaien zeredo zer larria gertatu zitzaizela, beraz, bizitakoa partekatzen hasi ziren. Lagunei azalpenak eman ostean, ideia-uholdearen txanda iritsi zen:

- Gipuzkoara joan beharko zenukete, dudarik gabe. - proposatu zuen Carlosek.

- Ez al dago inor familian horren berri izan zezakeenik? - galdetu zuen Marisak.

Azkeneko esaldi horrek alarma modukoa piztarazi zion Victoriari.

- Hori da! Izeba Mariak izango du honen guztiaren berri. Amaren ahizpa zaharrena da eta ama modukoa izan zen berarentzat, oso goiz geratu baitziren ume-zurtz. - ohartu zen Victoria.

Pentsatu eta ekin. Handik bi egunera kirioak dantzan zuzendu ziren Irene eta Victoria Gipuzkoarantz. Izeba

Maria Hondarribiko Karitatearen alaben konbentuan bizi zen aspaldi erretiratuta. Lekaime-erizaina izana zen gazte-gaztetatik. Dagoeneko laurogeita hamar urte luzeren bueltan izango zen, baina oso berezko zituen bere amak izan ez zuen kemena, osasuna eta buru ona.

Hotelean maletak utzi ostean berriro ere autoa hartuta Hondarribirako bidea hartu zuten. Hogei minutu baino gutxiago behar izan zuten konbentura iristeko. Ama Nagusiarekin hitzordua finkatua zutenez, berehala jaso zituen.

- Ongi etorri gure etxe xume honetara. -agurtu zituen.

Etxe xumea esaten din! XVIII. mendeko jauregi aparta dun etxe hau Hondarribiko auzo aberatsenean, Jaizubian. Hau xumea badun...

- Maria Iturgaitz ikusi nahi dugu, izeba dut. -eskatu zuen Victoriak.

- Bai, jakitun gara. Ahizpa Maria zain duzue lorategian. Neronek lagunduko dizuet. Edonola ere, aurreratu nahi dizuet azken bolada honetan burua galdu samarra duela. Badakizue, adina, laurogeita hamasei urte bete berri ditu...

Ama Nagusiari jarraitu zioten korridoreetan barrena. Irenek kortesiazko elkarrizketa mantentzen zuen bitartean, Victoriak paisaiari erreparatzen zion; ikusten zuena benetan zen ederra eta ikusgarria: jauregia belardiz inguratuta zegoen eta Jaizkibel mendia zuen babesleku iparraldean. Paradisua.

Lorategian aurrera egin zuten estalpe bateraino. Bertan tronu moduko aulki batean zegoen izeba Maria. Emakumea txiki agertu zen Victoriaren begien aurrean. *Ez dun batere aldatu, aurpegian ohiko begitarte zorrotza eta iluna din.*

- Ahizpa Maria, hemen dituzu... -hasi zen Ama Nagusia.

- Kosta zaizu etortzea, Victoria. Lehenago espero zintudan. -moztu zuen Mariak. - Joan zaitezke. -agindu zion lehor lekaimeak Ama Nagusiari.

Egoera ez zen batere samurra. Tentsioa nagusi zen.

- Noiz jakin duzu? -galdetu zion bortitz ilobari.
- Orain dela bi aste. -erantzun zion Victoriak tonu berean.
- Zer jakin nahi duzu? -berriro izebak.
- Dena.
- Ongi da. Heriotza ate joka dut, beraz, onena bakea hartzea izango da.

“1936ko abuztuan Nafarroatik etorritako soldadu batzuk Lezon barrena ibili ziren tiroka. Gure baserritik igaro zirenean, aitak aurre egin zien. Tarte hori aprobe txatu genuen Ines, zure ama, ukuiluan ezkutatzeko. Hamasei urte besterik ez zuen. Gutxi iraun zuen borroka desorekatu hark: aita tiro batez hil zuten. Ama eta biak sukaldetan topatu gintuzten, ukuilutik bueltan. Cupidarik gabe, behin eta berriz bortxatu gintuzten. Ama odolustu egin zen eta handik bi egunera hil zen.”

Maria kronika kontatzen arituko balitz bezala ari zen. Hotz.

“Oinazeari eta ikarari aurre egin eta zure amaren bila joan nintzen ukuilura. Hantxe zegoen, erabat joanda, beldurrak airean. Ondoko herrian zegoen Karitatearen

alaben “hospitalilloan” babestu ginen biak. Han sendatu-edo gintuzten, izan ere, tankera horretako zauriak ez dira sekulan erabat osatzen. Oso onak izan ziren gurekin; esker ona adierazteko lekaime-erizain egin nintzen. Ahizpa eta biak bertan “bizi” ginen. Berehala hartu zituzten gure herria eta ingurukoak mendean soldaduek. Bizirik jarraitzeko bere esanetara jarri behar izan genuen; aita eta ama hil zutenen esanetara; ama eta biak bortxartu gintuztenen esanetara...”

Orduntxe sumatu zitzaion lekaimeari emozioa, apur bat, disimulatuta, ezkutatuta...

“Egun batean kapitain bat azaldu zen “hospitalilloan”. Ihes egindako tiro batek zauri arina egin zion sorbaldan eta bertan igaro zituen bi aste. Zure amarekin maitemindu zen, seko, txoratu egin ziren elkarrekin. Zure amak hamazazpi urte besterik ez zuen, baina aitak behar-nahi zuen babesa eskaini zion. Eta ezkondu egin ziren. Bizitzak, beste behin ere gehien maite nuena ohostu zidan, gupidarik gabe. Egunero etortzen zitzaidan bisitan; eta egunetik egunera zimeltzen ikusi nuen. Ez zuen haurdun geratzea lortzen. Berak ama izan nahi zuen beste ezer baino gehiago. Nire nexka, nire panpina sufritzen ari zen.”

“Gau batean kapitaina etorri zen “hospitalilora” mozkor-mozkor eginda. Garrasika deitu zidan. Jaitsi eta sukaldeta eraman nuen lasaitu zedin. Bertan emaztea ihartzen ari zela aitortu zidan, zer edo zer egin behar



nuela, bere ahizpa zaharrena nintzela eta nire ardua zela zoriontsua izatea. Ez nuen ulertzen zer esan nahi zidan. “Ume bat lortu behar duzu zure ahizparentzat! Sortu, lapurtu, ... nahi duzuna egin”. Oraintxe bertan esan izan balizkit bezala gogoratzen ditut bere hitzak. Nik *sortu*? Ezinezkoa zen, bortxaketengatik antzu geratua nintzen...

Aukera bakarra geratzen zitzaidan: lapurtzea. Eta halaxe egin nuen...

Zure ama biologikoa preso zegoen, errepublikaren aldekoiei laguntza eskaini zieten berak eta bere aitak, herriko medikuak. Emakume zaila, menderakaitza eta matxinoa zen. Atera kontuak: soldaduek preso hartu zutenerako haurdun zegoen. Umearen aita errepublikaren alde Kataluniatik etorritako tenientea omen zen, ihes egindakoa. Egoeraz jabetu ginenean, konbentuan bertan gela aparte batera eramán genuen besteengandik urruti. Abuztuaren 3an jaio zinen zu, Victoria. Amak eta biok begirada gurutzatu zenuten, elkar ezagutu bazenute bezala. Instant laburra izan zen, ordea, neronek eramán baitzintudan ondoko gelara. Ordurako Ines hasia zen itxurak egiten, “haurdun” egongo balitz bezala, beraz, ez zen inor harritu zu beso artean zintuela azaldu zenean.

Hori hasiera besterik ez zen izan. Handik aurrera maiz egin genuen gauza bera: preso zeuden amagaiei haurrak ohostu eta gerra irabazle suertatutakoei “oparitu”.

Haur lapurtuak. Zeure kontzientzian eramango dituzu guztiak hilobira, putakumea...

Victoriak listua irentsi zuen, nekez.

- Eta amari, zer gertatu zitzaion? -galdetu zuen korapiloa eztarrian zuela.

- Zure ama? Zure ama orain dela hogeitun urte hil zen. Hori izan zen zure benetakoa ama!!! -egin zion garrasi Mariak.

Victoriak tinko eutsi zion izebaren begiradari eta aurpegiko keinu zorrotza baliatuz, galdera errepikatu zion:

- Non dagoen nire benetakoa ama...

Esaldia gogor, inolako errukirik gabe atera zen bere bihotz barrutik. Maria ez zen izutu, ordea. Urte asko zeraman arima beltza zuela eta jada gogortua zegoen.

-Zure ama biologikoa ihes egin zuen kartzelatik zaindarien deskuido batean. Ez zuten harrapatu, baina ziur aski kuneta batean amaituko zuen, hilik. -lekaimeak murririkaz.

Victoria izebarengana hurbildu zen, emozio-uholdeari ezin eutsiz:

- Zu ez zara Jainkoaren alaba; zu deabrua zara: gaiztoa eta zitala. Eta beranduago ala lehenago ordainduko duzu. Infernuko sutan erreko zara, doilor hori!

Izeba-iloba elkarri begira geratu ziren hamar zentimetro eskasera. Une horretantxe lekaimeak aspaldi, behin eta berriz bortxatu zutenean, bere baitan sentitutako gorrotoa ikusi zuen bere ilobaren begietan. Aiherkundera jasanezina suertatu zitzaion, hala, ezin izan zien eutsi begietatik bere kabuz irteten ari ziren malkoei.

- *Touche*, izeba! Infernuan erreko ahal zara -agurtu zuen Victoriak.

Irene eta biak besotik helduta atera ziren konbentutik moja atzean utzita. Ordurako ez zen bere senidea, arrotza baizik. Berarentzat hilik zegoen.

Victoriaren aurpegia ez zen ordea hitsa, zorigaiztokoa. Ez zen umezurtz sentitzen. Bere bizitzak bazuen zentzua. Orduantxe, tupustean ulertu zuen bere-berezkoak zituen nortasunaren ezaugarrien jatorria: justiziaren defendatzaile amorratua izatea, borrokalari sutsua, giza-eskubideen sinesduna... Eta bere izaerarekin harro, zoriontsu sentitu zen, eta aspaldiko partez bakean.

Jada aparkalekuan Victoria bere neska-lagunaren parean geratu zen eta gerritik helduta maitasunez betetako begirada amultsua eskaini zion.

- Irene, maitia, zorionekoa naiz, oso. Une honetantxe askoz ere hobeto ulertzen dut neure burua, neure izaera, ederki aski ulertu dut zein ez naizen.

Orain zein naizen jakitea falta dut.